



[www.berastegi.eus](http://www.berastegi.eus)

## 2017ko AURREKONTUA

1. 2017ko aurrekontuaren itxiera: Falta ziren sarrera eta gastu guztiak kontuan hartuta, 187.000 euroko gerakinarekin itxi dugu 2017ko udal aurrekontua. Urteko balantzearen balorazio ona egin du udal gobernua.

## HIRIGINTZA

2. 2017ko eta 2018ko Leader diru-laguntzak: Hiru proiektu aurkeztu genituen 2017 bukaerako ez-ohiko deialdira, urteko deialditik kanpo geratu ziren proiektuentzat ireki zen deialdira; eta hirurek ezezko erantzuna jaso dute, neurri batean oinarrien berri zehatzik ez genuelako. Batetik, plazako bigarren fasea; kanpoan geratu da zuzenean, proiektua hasi gabe egotea zelako laguntza lortzeko baldintzetako bat. Eta, bestetik, frontoia eraberritzeko proiektua eta Ariztun auzoa argiztatzeko proiektua; hauek ere ezezkoa jaso dute, 2017ko udal aurrekontuan ez geneukalako bi proiektu hauei begirako partidarik aurreikusita eta pleno bidez onartu gabe geneuzkalako. Plazako bigarren fasearekin agortu zaizkigu aukerak, baina frontoia eraberritzeko eta Ariztun auzoa argiztatzeko proiektuek, bete gabe geratutako baldintzak beteta, aukera dute 2018ko deialdian laguntza lortzeko.

Bestalde, 7. puntuan xeheago azalduta datorren mediku-etxe zaharraren inguruko parte-hartze prozesua amaitu ondoren, egitea erabakitzen dugunak diru-laguntza lortzeko aukera izan dezakeela ikusten badugu eta epeek ahalbidetzen badigute, hartarako ere egingo dugu laguntza-eskaera.

3. Frontoia eraberritzeko proiektua: Otsailaren 19ko plenoan eman genion proiektuari onarpena aho batez eta aurreproiektua aurkeztua daukagu 2018ko Leader diru-laguntzetara. 7 enaikuntza-entresa aurkeztu ziren lanen lizitazio- eta esleipen-prozesura; eta, herriko arkitektoak proposamen horiek aztertu eta baloratu ondoren, apirilaren 9ko plenoan onartu genuen eraberritzelanak helbide fiskala Leitzan duen Joseba Zubillaga Sestorain enpresari esleitzea. Hark izango du, beraz, lanen ardura.





4. Ariztun auzoa argiztatzeko plana: Errepide nagusitik auzora eta auzoan zehar 11 kale-argi jartzeko proiekturako bi aurrekontu dauzkagu mahai gainean: batetik, eguzki-energiaren bidezko kale-argiena; eta, bestetik, led bidezko kale-argiena. Bi proposamenak aztertu eta aukera egin ondoren, proiektu hau ere 2018ko Leader diru-laguntzetara aurkezteko epe barruan ibiliko gara.

5. Hirigintza-lanak epe motzean: Laster Mallorkina etxea plazarekin eta Ategiko bide berriarekin lotuko duen espaloia egingo dugu, baita Modestoenea Ategiko bide berriarekin lotzeko espaloia ere.

Baserri-bideak eta mendi-pistak konpontzeko diru-laguntzak deitu berri ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak eta eskaera egingo dugu. 5 bide edo konponketa-lan aurkezgenitzakeen, denak ere 2.000 euro baino goragoko aurrekontuarekin. Guk, herritarrek egindako eskaerak aintzakotzat hartuta, hauexek aurkeztu ditugu aurtengo deialdira: 1) Juanluzenea eta Iturbe etxeak lotzen dituen bidea, 2) Lizarra eta Loretoki etxeak lotzen dituen



(Elduinalde auzora oinezkoen irisgarritasuna bermatzeko asmoz), 3) Gorritxiki eta Bordatxuri etxeen artekoa, 4) Ulizar eta Irumugarrieta artekoa eta 5) Añako bi bideak.

Deialdiari zegozkion baldintzak bete ez arren, ondorengo bide hauek ere konpontzeko asmoa dugu epe motzean: Gazpio etxearen pareko bihurgunea eta Mintxolo eta Urlo arteko bidea. Arbide atarian urak ondo hartzeko lanak ere eraman nahi ditugu aurrera. Eta elur-izotzek eta batez ere botatako gatzak herri-bideetan eragindako zuloak konpontzen ere ahaleginduko gara.

6. Modestoenetik Lizarrako bidegurutzerako irisgarritasuna: Otsailaren 15ean izan genuen bilera Gipuzkoako Foru Aldundiko errepideetako arduradunekin eta adierazi zigutenez, 2017an ez bezala, 2018ko aurrekontuan onartu dute gure udal gobernua aurkeztutako proiekturako diru-partida.

Ibilgailuen abiadura murriztea eta oinezkoen irisgarritasuna bermatzea helburu duen gure proiektua osorik ez, baina zenbait neurri beren gain hartzeko prest agertu dira errepideetakoak: 1) Lizarrako bidegurutzetik plazara argi keinukariak eta seinaleak jartzeko, 2) Bista Eder parean Yereginea etxe-ari lur-sail zati bat hartu, errepidea zabaltzeko eta erdian isleta egiteko, eta 3) Yereginea ondoan espaloia egin eta handik Bista Ederrera zebrabidea jartzeko.

Gure proiektuak oinezkoentzako espaloia gehiago ere aurreikusten zituen: Bista Ederretik Ategiko bidera eta Eguzkitzara, eta handik Lizarrako bidegurutzera. Baina espaloiak ez direla errepideetako konpetentzia argudiatuta, ez dituzte finantzatu. Espaloiak berez mugikortasun sailari dagozkio, baina zail ikusten dugu handik ezer jasotzea, bidegorriak egiteko lanak lagundu ohi dituzte eta.



Guk ondo ikusi dugu Aldundiaren proposamena eta 2018an zehar egiteko modua baduela adierazi digunez, agindutakoarekin eta esandako lanekin hasteko adierazi diogu Aldundiari. Proiektua esku artean dugunean, informazio gehiago zabalduko dugu. Gu, gure aldetik, Aldundiaren proposamena osatzeko aukerak aztertzen ari gara, oinezkoei ibilbide segurua bermatzeko: 1) Bista Ederretik Ategiko errepide berrirako pasabidea geure gain hartzea, 2) Yereginetik Bista Ederrera bezala, Eguzkitzara ere zebraidea egitea etab.

7. Mediku-etxe zaharra: Etxez etxe banatutako galdetegietan jaso genituen eraikin honi begirako herritarren proposamen batzuk; eta, Tolomendiren 2018ko Gestio Planaren arabera, diru-laguntzak jasotzeko aukera izan lezakeen proiekturen bat ere gara dezakegula bertan ikusita, zerbait egitea erabaki dugu. Zer eta nola egin erabakitzeko, herritarrengana jotzea pentsatu dugu, udaletxeko kultur solairuarekin, plazarekin eta frontoiarekin egin genuen bezala.



Parte-hartze prozesua jarria dugu martxan: 1) lehen saioa apirilaren 21ean, larunbata, 16,00etan izan zen udaletxean, herritarren ideiak jasotzeko; eta 2) bigarrena apirilaren 27an, ostirala, 17,00etan izango da, lehen saioko proposamenak aurrera eramateko zer aukera dauden aztertzeko.



8. Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa (ITE): Eusko Jaurlaritzak indarrean jarria duen araudiaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan 50 urte baino gehiago dituzten eta bide publikoren baten ondoan dauden eraikin guztiek pasa beharreko ikuskaritza dugu hau. Denbora tarte horretan eraikinak birgaitzea edo goitik beherako eraberritzea izan badu edo katalogatutako eraikina bada soilik izango da salbuetsia ikuskaritza egitetik; eta, halakorik bada, ziurtatu egin beharko da dagokion dokumentazioa ekarrita. Gainerako guztiek hartarako baimendua dagoen arkitektoen batekin harremanetan jarri eta ikuskaritza pasa izanaren txostena aurkeztu beharko dute udaletxean.

Eraikinen egiturari, argindar-instalazioari eta isolamendu-sistemari begiratzen diote, batez ere. 2018ko ekainaren 27ra arteko epea dago txostenak aurkezteko. Epe hori pasata, udalok izango dugu ikuskaritza pasatzeko ardura.

Badakigu gai honek kezka eta zalantza ugari sortu dizkizuela herritarroei, asko izan zarete udal bulegoetara jo duzuenak gaiaren inguruan galdezka. Horixe eskatu nahi dizuegu, etortzeko lasai dudak argitzera, laguntzeko gaude eta.

## UDAL FUNTZIONAMENDUA

9. Herri-langilearen lan-kontratuaren luzapena: Beste urtebeterako luzatu zaio kontratua Unai Mendikuteri. Herri-lanetan jarraituko du, lanaldi erdian.

10. Gaztelekuaren proiektua: Etxez etxe banatutako galdetegian batek baino gehiagok aipatu zuten gazteleku baten beharra herrian. Hala, herritarren eskaerari erantzunez, bilera antolatu genuen urtarrilaren 4an herriko gazteekin (2002 eta 2006 artean jaiotakoekin) zer, non eta nola izan litekeen erabakitzen hasteko. Bildutako 30 gaztetxoekin gaztelekua jartzeko pentsatutako lokala (hainbat urtez KZ-gunea izan zena) ikusteko eta funtzionamendua arautzen hasteko aukera izan genuen.

Beste bi bilera ere egin ditugu: martxoaren 26an bata eta apirilaren 3an bestea. Beharrezko materialez hornitzen eta araudia osatzen ari gara elkarlanean.

Maiatzean zehar, gaztelekuko bazkide izan nahi duten gazteen arduradunei udal-bulegoetatik pasatzeko eskatu nahi dizuegu, bazkide-txartela eskuratzeko eskaera betetzera eta pleno bidez onartuko dugun araudia sinatzera.



11. Jubilatuekin eta Gaztainondo Elkarteko bazkideekin bilera: Herritarrekin hitzartutako bigarren bilera urtarrilaren 19an egin zen Gaztainondo Elkartean. Elkarrekin hartu-emanen jarraitzea eta maiztasun batez ekintza-sorta bat antolatzea adostu genuen, jendea erakartzen joateko.

12. Herriko emakumeei zuzendutako bi bilerak: Eta hirugarren deialdia, herriko adin guztietako emakumeei zuzendua, urtarrilaren 26an egin zen, bata 10,00etan eta bestea 18,00etan. Guztira 9 lagunek hartu zuten parte eta gai interesgarriak jarri ziren mahai gainean. Proposamen batzuen inguruan martxan ditugu dagoeneko zenbait ekimen, Berdinbidean proiektuarekin lotuta.

## INGURUMENA eta ENERGIA

13. Ontzi arinen inguruko kanpaina: Tolosaldeko Zabor Mankomunitateak, ontzi arinei dagozkien edukiontzien erabilera hobetzeko asmoz, kontzientziazio-kanpaina jarri du martxan eskualdean. 3 astez 3 stand edo postu jartzen ari dira herriz herri edukiontzi horira bota behar diren eta ez diren hondakinen inguruan kontzientzia hartzeko. Gurean maiatz aldera jarriko ditugu eliz atarian.

14. Eliz atariko traste zaharren kaxoia: Bere garaian jarri genuenean, herritarrei zerbitzua ematea zuen helburu, inguruko garbiguneetara joan beharrik ez izateko traste zaharrak uztera eta Mankomunitatetik bilketa egitera etortzen diren egunetara bakarrik ez mugatzeko zerbitzua. Azken aldian, ordea, oso erabilera desegokia ematen ari gaitzaizkio kaxoiari. Bertan uzten diren hondakinak edukiontzi ezberdinetara bota daitezkeenak dira askotan: beira, ontziak, plastiko gogorrak, egurrak... Guk argi utzi nahi dugu ez dela udal langileen lana hondakinak sailkatzea, hori norbere ardura dela. Ez genuke egoera hau areagotzen joaterik nahi. Espero dugu herritarren aldetik jarrera aldaketa ego- tea, gainerakoan zerbitzua kolokan jarriko litzateke eta.

15. Artalekuko eremua: Gipuzkoako Foru Aldundia eremua industriagune izendatzeko edo kalifikatzeko pausoak emateko prest dagoela dirudi. Beraz, herriko arkitektoari Artalekuko eremuaren inguruko txosten edo dokumentu tekniko bat prestatzeko agindu diogu, garaia eta aukera iristen bada, herriaren eskaintza potentzial gisa aurkezteko eta defendatzeko. Prest daukagu dagoeneko dokumentua. 13.000 m<sup>2</sup>-ko eremua daukagu bertan erabilgarri. Orain zer erabilera eman eta zer eta nola eraiki erabakitzea dagokigu.



16. Uholdeek errekan eragindako kalteak: Otsaileko euriteen ondoren, argazkiak atera eta bidali genizkion beste behin URA agentziari, errekan eta erreka inguruan izan genituen kalteen eta dauzkagun arazoen berri izan zezan. Erantzun digutenez, haiek ez dute eremuan aparteko arazorik ikusten; ez dute erreka garbitzeko asmorik, ezta garbitzeko baimenik ematekorik ere.

Guri ez zaigu erantzuna oso serioa iruditu eta herriko aparejadoreak aholkatuta, bilera berri bat eskatuko diogu, kasu honetan, URA agentziako Gipuzkoako zuzendariari. Ur zikinak ere behar bezala bideratu gabe daude Berastegin eta kolektorearen proiektua zintzilik aspaldian. Ea zer dioten.

## NEKAZARITZA, ABELTZAINNTZA eta BASOGINTZA

17. Ipuliñoko larre komunalen proiektua: Urtarrilean bi bisita egin zituzten Gipuzkoako Foru Aldundiko Etorlur erakundeko teknikariek eta arkitektoak, larre komunalen mugak zehazteko eta markatzeko asmoz. Aho batez onartu zen Aldundiko teknikarien proposamena, alde guztien adostasunarekin; mugak zehazterakoan dudarik edo arazorik izan dutenek topografo bat kontratatuko dutela erabaki zuten, muga definitiboak erabakitzeko.



Itxiturak, askak eta ganadua ez pasatzeko burdin-sareak non eta nola jarri ere aztertu genuen.

Azken aste hauetan, berriz, larreen eremuan sartuko diren lur-sailen eskriturak entregatu dituzte lur-jabeek eta haiek egiaztatzen eta baliozkotzat hartzen aritu dira Aldundiko teknikariak. Lan horiek bukatuta, martxoaren 23an sinatu genituen lur-sailei dagozkien zesio-hitzarmenak larre komunalen lehen fase honetan parte hartuko dugun 9 lur-jabeok (udalak berak ere bai), udaletxean.

Zesio-hitzarmenak sinatuta, larreak garbitzeko eta ixteko lanekin hasteko moduan izango gara. Xabier Saizarrek izango du lan horien ardura.



18. Zuzeneko salmenta: Bilera baterako deia egin nahi dugu herriko ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko sareari jarraipena emateko eta ekoizle edo kontsumitzaile berririk bada, sarean sartzeko, baita lehen sektorearen inguruan dauzkagun proposamenen berri emateko ere. Maiatzean izango da bilera.

## GIZARTE ZERBITZUAK

19. Berdinbidean programa: Urtarrilaren 22, 23 eta 25ean egin ziren eskolako 4., 5. eta 6. mailako ikasleekin hezkidetzeta-saioak, goizez eskola-orduetan. Sexu-heziketaren gaia landu zuten. 25 arratsaldean, berriz, gaztetxoek gurasoekin egin zen saioa udaletxean, ikasleekin landutakoaren berri emateko eta gaia etxean nola landu aholku batzuk eskaintzeko.



Antolatzaile izan den *Harreman* elkarteko kideek oso positiboki baloratu dute saioek emandakoa. Datorren ikasturtean ere Hezkidetzeta proiektuarekin jarraitzeko asmoa dugu.

## MOTZEAN

20. Ubideak garbitzeko eta konpontzeko lanak: Enplegu Planaren baitan eta Lanbideren diru-laguntza baten bidez, Tolosaldea Garatzenek eskualdeko udalerrietan ubideak garbitzeko lanak agintzen dizkio urtero Belarmendiri. Aurten ere badugu zerbitzua erabiltzeko asmoa; Gorosmendi eta San Lorentzora inisteko bidea konponduko dugu.

21. Panel informatiboak herrian zehar: Eskatuta daude dagoeneko. Hamabost egunean iritsiko dira. Kartelak nonahi jartzen ibili ordez, leku jakinetan eta txukun egin nahi ditugu iragarpenak hemendik aurrera. Herriko elkarte eta eragileek ere erabili ahal izango dituzte panel hauek iragarpenak egiteko.

22. Bionda Bordaberri ondoko kurban: Jarrira dago dagoeneko. Aldapak eta bihurgunearen okerdurak arriskutsu egiten dute pasabidea, batez ere elur-izotz garaian. Hargatik erabaki dugu babes jartzea.

## KULTURA eta KIROLA

23. Inauteriak: Herriko jaia urtarrilaren 27an egin zen. Goizean Urepele Elkarteak hamaiketako eskaini zuen plazan eta ondoren *Altxorraren bila* joko parte hartu nahi izan zutenentzat. Segidan mozorro-taldeek ikuskizunen erakustaldia egin zen eta ondoren 180 laguneko herri-bazkaria udaletxean. Arratsaldean, berriz, poteoa egin zen elektrotxaragaren konpainian eta festak Urepele Elkartean izan zuen segida lunch eta DJarekin.



24. Negutrail mendi-lasterketaren I. edizioa: Udal gobernuaren babesarekin antolakuntzan aritu den lan-taldearen arabera, oso arrakastatsua izan zen otsailaren 4an lehen aldiz egin zen mendi-lasterketa. Izenari ohore eginez, elurpean eta elur gainean, tenperatura hotzekin jokatu zen. Aste batzuk



lehenago betea zen onartutako gehienezko parte-hartzaile kopurua eta 250 lasterkerik hartu zuten parte Urdelar, San Lorentzo eta Ipuliñon barrena egin zen 17 kilometro inguruko lasterketan. Herritar talde zabal bat ere ibili zen lanean boluntario eta eskerrak eman beharrean gaude guzti-guztiei. Datorren urteko ediziorako indarrak hartuta gaude, zalantzarik gabe.

25. Euskararen kale-neurketaren emaitzak Berastegin: Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak euskararen kaleko erabileraren neurketak egin zituen 2017an zehar UEMAkide diren udalerrri guztietan. Lortutako emaitzen eta beste hainbat gairen inguruan hitz egin zigun Garikoitz Goikoetxea *Berria* egunkariko kazetari eta Galtzaundi Elkarteko kideak otsailaren 16an eskaini zigun hitzaldian.



26. UEMAren urteko plangintza: Martxoaren 6an bildu zen alkatea Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko teknikariarekin, urteko plangintza antolatzeko. 2018ari begira, 1) herriko denda eta tabernetara bisitak egin nahi ditugu, hizkuntz paisaiaren diagnostikoa egiteko eta euskararen aldeko neurrien inguruan aholku emateko; 2) eskolan aurten Lehen Hezkuntzako ikasleekin landuko da UEMaren hezkuntza proiektua; eta 3) azaro amaieran hasi eta abenduaren 3ra arte *Euskaraldia* ekimena jarriko dugu martxan, hizkuntz ohiturak eta inertiak aldatzeko asmoz; "aho bizi" eta "belarri prest" funtzioak beteko dituzten herritarrak animatu nahi ditugu ekimenean parte hartzeko.

27. Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna: 19,00etan elkarretaratzea eta manifestazioa egin genituen herrigunean, herriko batukada-taldearekin batera, "*Emakumeok gelditzen bagara, mundua gelditzen da*" zioen pankartapean. Martxoaren 9an, ostiralez, zoru-pelbikoari buruzko hitzaldia izan



genuen 17,30ean, Arindu fisioterapia-zentroaren eskutik, eta 21,00etan urteetan datorren emakumeen afaria, aurten berrikuntza batzuekin: udaletxean eta ondorengo dantzaldiarekin. 80 lagun bildu ziren afarira. Eta, egitaraua osatzeko, martxoaren 11n, igandea, 17,00etan *Ez da kasualitatea* bertso- eta musika-ikuskizuna. Aldarrikapena eta festa bat eginda, beste behin.

28. Tolosaldeko Arraun Elkartearen proposamena: Jubenil eta senior mailako emakumezko arraunlariekin trainerua osatzeko asmoa du elkarteak eta eskualdeko 28 udalekin bilerak egiten ari dira proiektua aurkeztu eta finantziazioa lortzeko. *Tolosaldea* izena eramango du traineruak eta eskualdeko 28 herrien izenak aurraunetan idatzita. Entrenatzeko azpiegiturak Zarauzko klubak utziko dizkie, gaur egun mutilei uzten dizkien bezala, eta elkartearen gastuei aurre egiteko urteko eta biztanleko 0,5 euroko laguntza eskatu digute udaloi. Gure kasuan, 500 bat euro lirateke. Elkartean arraunlari herritarrak ere baditugunez eta gehiago ere izan litezkeenez, bat egin dugu proiektuarekin.

29. I. Mikroipuin lehiaketa herrikoia: Udal liburuzainaren eskutik iritsi zitzaigun proposamena. Martxoan zehar gehienez ere 100 hitzeko nahi adina ipuin aurkeztu ahal izan dituzte berastegiarrek lehiaketara, euskaraz eta gai librean. Hiru kategorია izan ditugu: 12 urtera arte, 12 urtetik 16 urtera bitarte eta 16 urtetik gora. Esan behar da bigarren kategorian ez dela parte-hartzailerik izan.

Kategoria bakoitzeko 2 ipuin onenen egileek kultur produktuetan gastatzeko balea eta 50 eta 30na euro izan dituzte saritzat; eta jakin ipuin txapeldunak 2018ko *Aidanen* aldizkarian argitaratuko direla. Sari-banaketa ekitaldia apirilaren 22an egin zen, Liburuaren Nazioarteko Eguna-ren bezperan, udal liburutegian. Aurretik *Luzia espia* izeneko ipuin-kontaldi antzeztuaz gozatzeko aukera izan genuen, Iraitz Lizarragaren eskutik.



30. Herriko elkarteentzako diru-laguntzak: Urtarrilaren 30ean bildu ginen herriko elkarteekin, urteroko legean diru-laguntzen deialdia martxan jartzeko, elkarteek urteko egitasmoak aurrera eramateko laguntza izan dezaten. 12.000 euroko partida dugu aurten elkarten artean banatzeko eta irizpide elkarteak zer antolatzen duen eta zenbat herritarrengana iristen den hartu ohi dugu.

Txosten guztiak jasota, banaketa eginga dugu. Dagoeneko eman diegu erabakiaren berri eta ingresatu zaie laguntzaren lehen zatia (%60). Bigarren zatia (beste %40a) urte amaieran, elkarteek urteko memoria aurkeztean edo, hala behar eta eskatuz gero, haiek adierazitako epean emango diegu.

Bilera berean kultur teknikari berriaren aurkezpena ere egin genuen. Bi hilero argitaratu eta banatuko dugun herriko kultur eta kirol agenda osatzen egingo du lan, herriko elkarteekin elkarlanean.

31. Burdina Taldearen hurrengo proiektua: Denboraren joanak hondatutako ondare arkitektonikoak garbitzen eta berreskuratzen lanean ari den Andoaingo elkarteak badu garbitu eta berreskuratu nahi lukeen eremu berri bat: Amerialde auzoko labadero bat eta bi karobi. Proiektua prestatzen ari dira.

32. II. Ibarraldea Abentura Raid: Orientazioan oinarritzen den kirola da abentura raid-a eta trekking-a, mendi-bizikleta eta eskalada konbinatzen ditu. Euskal Herrian zehar egiten den 6 probako *Ipar Ligako Abentura Raid* txapelketari maiatzaren 5ean emango zaio hasiera, aurten lehen aldiz Ibarako probarekin, eta lehen proba honek Berastegiko plazan izango du irteera-puntua. Goizeko 10,00etan ekingo zaio eta 7-8 orduko saioa izango da. Lanerako 6 boluntario eskatu dituzte.

33. Irteera sagardotegira: 2017ko Salontzoak eta Kultur Astean kolaboratzaile izan genituen herritarrekin Lizartzako Goikoetxea sagardotegira irteera antolatu genuen martxoaren 24an. 35 lagun bildu ginen. Musu truk egindako lana eskertu nahi izaten diegu herritarrei irteera honekin.

34. Festak antolatzeko bilerak: 2018ko Salontzoak ere ate joka ditugu. Apirilaren 10ean egin genuen lehen bilera eta bigarren baterako hitzordua ere jarrita daukagu: maiatzaren 7an izango da 20,30ean.